

II. ERANSKINA

ENPRESA ETA BERRIKUNTZA ZENTROAK

Enpresa eta Berrikuntza Zentroa. (Saiolan EBZ).
Gipuzkoako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa (Berrilan).

Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa (CEIA).
Ezkerraldearen Enpresa Garapenerako Zentroa (CEDEMI).

Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentrua/ Centro de Empresas de Innovación de Bizkaia (BEAZ).

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

Zk-2810

AGINDUA, 2003ko apirilaren 22koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programaren» lagapen-baldintzei eta esleipen-prozedurari buruzkoa.

2002-2005 Etxebizitza Bideratzeko Plana betez, eta abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak «Etxebizitza Hutsaren Programa» ezarri eta arautu zuen, eta «Vivienda y Suelo de Euskadi S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» (Visesa) erakundeari eman zion kudeatzeko ardura. Era berean, aurreikusi zuen programaren alderdi batzuk garatu behar zirela, eta, ondorioz, sortu da Agindu hau.

Alderdi horietako lehenengoa ondokoa litzateke: «Etxebizitza Hutsaren Programaren» baldintzak betetzen dituzten etxebizitzak jabeek, etxebizitza horiek modu libre eta osoan erabil ditzaketenek, itundu eta «Visesaren» esku utz dezakete etxebizitzak erabilera aldi baterako. Negozio juridiko hau dagokion kontratuan gauzatuz gero, aurretik jarduketa batzuk egin beharko lirateke, esaterako higiezina baloratzea eta bizi ahal izateko behar diren obrak egitea. «Visesa» eta balizko lagatzailearen arteko harremana izango da, betiere kontrataziorako funtsezko elementuak oinarri direla (prezioa, errenta edo kanon zehatza, iraupena...).

Era berean, ondoren etxebizitzak errentan har ditzaketen pertsonak aukeratu eta esleitzeko prozedura ere zehaztu behar da. Hori dela-eta, jarduteko esparru bat, argia bezain malgua, sortu behar da, programa hau dela-eta herri baltzu horrek egin beharreko lan zaila arrakastaz gauza dezan. Ildo horretan, «eskuragarri dauden

ANEXO II

CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACION

Centro de Empresas de Innovación. (CEI Saiolan).
Centro de Empresas e Innovación de Gipuzkoa (Berrilan).

Centro de Empresas e Innovación de Alava (CEIA).
Centro de Desarrollo Empresarial de la Margen Izquierda (CEDEMI).

Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentrua/ Centro de Empresas de Innovación de Bizkaia (BEAZ).

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

Nº-2810

ORDEN de 22 de Abril de 2003, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre condiciones de cesión y procedimiento de adjudicación del «Programa de Vivienda Vacía»

En ejecución del Plan Director de Vivienda (2002-2005), el Gobierno Vasco, a través del Decreto 316/2002 de 30 de diciembre, procedió al establecimiento y regulación del «Programa de Vivienda Vacía» encomendando su gestión a la sociedad «Vivienda y Suelo de Euskadi S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» (Visesa), previendo, a su vez, la necesidad de su desarrollo en algunos aspectos y motivando la promulgación de la presente Orden.

El primero de estos aspectos sería el del modo en el que los titulares dominicales que se hallen en plena y libre disposición de viviendas que cumplan las condiciones del «Programa de Vivienda Vacía» puedan concertar y ceder su uso y disposición temporal a favor de «Visesa». La formación de este negocio jurídico que, en su caso, llegue a concretarse en el pertinente contrato, exige una serie de actuaciones previas como la valoración del inmueble y las obras que puedan resultar necesarias para su habitabilidad, en un proceso en el que la mutua relación entre «Visesa» y el potencial cedente se forjará sobre elementos esenciales para la contratación (precio, renta o canon cierto; plazo de duración...).

Igualmente, resulta necesario precisar también el procedimiento de selección y adjudicación de los potenciales arrendatarios posteriores de las mencionadas viviendas, creando, con todo ello, un marco de actuación claro a la vez que flexible para que la referida sociedad pública pueda materializar con éxito su comple-

etxebizitzaren poltsa bat» irekiko da, (Etxebide) Eskatzaileen Erregistroko izen-emateekin batera joango dena; betiere publikitate eta lehiaketarako bermerik handiena emango da, azkartasun eta arintasun handienarekin batera.

Ondorioz, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa finkatzen duen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren 4. artikuluan eta «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatu, programa horren araubide juridikoa ezarri eta Visesa Baltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen dion abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren lehenengo azken xedapenean ezarritakoari jarraiki, ondokoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuan jasotako zehaztapenak garatzea da Agindu honen xedea. Dekretu horren bitartez, «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatu, programa horren araubide juridikoa ezarri eta Visesabaltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen zaio. Beraz, agindu honetan arautzen dira, batetik, titularren etxebizitzak lagatzea, eta, bestetik, etxebizitzak errentan hartuko dituztenei esleitzeko ondorengo prozedura.

2. artikulua.— Titularrentzako dei publikoa.

«Visesa» herri baltzuak gutxienez behi egingo die deialdi publikoa abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuan ezarritako baldintzak bete eta etxebizitza hutsak dituzten titularrei, titularrek aukera izateko baltzuekin harremanetan jartzeko eta aldi baterako lagapen kontratua itundu, eta hala badagokio, egiteko.

3. artikulua.— «Visesari» lagatzeko prozedura.

1.— Jabeek aldi baterako usufruktuaren bidez lagako dizkiote etxebizitzak Visesari, errentamendu-kontratua lagaz, errentamendu bitartez, edo, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Zuzenbidean balio duen edozein tituluren bidez. Edonola ere, era zehatza beti aukeratuko da alderdi bien adostasuna aintzat hartuta.

2.— Etxebizitza dagoen aldeko merkatu-prezioaren arabera zehaztuko zaie Etxebizitza Hutsa programan onartutako etxebizitzari prezioa, kanon edo errenta, alegia, pertsona edo erakunde lagatzaileak «Visesatik» jasoko duena.

3.— Hori dela-eta, «Visesak» eskainiko den etxebizitza bakoitzeko agiri bat egingo du. Bertan, gutxie-

jo cometido en relación a este programa. En tal sentido, se promueve la apertura de una «bolsa de viviendas disponibles» que discurrirá en paralelo a las inscripciones en el Registro de Solicitantes (Etxebide) posibilitando tanto las máximas garantías de publicidad y concurrencia como la mayor agilidad y rapidez (imprescindibles en contratos temporales como los arrendamientos) en su adjudicación.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y en la disposición final primera del Decreto 316/2002, de 30 de diciembre, por el que se promueve e impulsa el «Programa de Vivienda Vacía», se establece su régimen jurídico y se encomienda su gestión a la Sociedad Pública Visesa,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

La presente Orden tiene por objeto el desarrollo de las determinaciones contenidas en el Decreto 316/2002, de 30 de diciembre, por el que se promueve e impulsa el «Programa de Vivienda Vacía», se establece su régimen jurídico y se indica que la gestión se realizará a través de la Sociedad Pública Visesa, regulando la cesión de las viviendas por parte de sus titulares así como el procedimiento de su posterior adjudicación a quienes resulten arrendatarios de las mismas.

Artículo 2.— Llamamiento público a titulares.

La sociedad pública «Visesa» realizará, como mínimo, una convocatoria o llamamiento público a los titulares de viviendas vacías que reúnan las condiciones previstas en el Decreto 316/2002 de 30 de diciembre al objeto de que los mismos puedan contactar con la referida sociedad para concertar y, en su caso, otorgar el correspondiente contrato de cesión temporal.

Artículo 3.— Procedimiento de cesión a «Visesa».

1.— La cesión de las viviendas por parte de los propietarios a Visesa se realizará mediante la cesión en usufructo temporal, mediante la cesión del contrato de arrendamiento, mediante arrendamiento o, tal y como se especifica en el artículo 4 del Decreto 316/2002 de 30 de Diciembre, por cualquier título válido en Derecho. En cada caso, la elección de la forma concreta se hará de común acuerdo entre las partes.

2.— A las viviendas admitidas al programa de Vivienda Vacía les será fijado, en atención a los precios del mercado de la zona en la que la vivienda se encuentre ubicada, el precio, canon o renta que la persona o entidad cedente percibiría de «Visesa» una vez deducidos los gastos de gestión y las obras de reforma necesarias para su habitabilidad y arrendamiento posterior

3.— A tal efecto, «Visesa» elaborará un documento específico para cada una de las viviendas ofrecidas, en

nez, hauek jasoko dira: eginiko tasazioaren emaitza, egin beharreko obren aurrekontu osoa, obrak egiteko behar den epea, eta baltzuak etxebizitzaren titularrei egiten dien lagapen-proposamena.

4.– Proposamena onartzen baldin bada, lagapen-kontratuan jasoko da. Alderdi biek izenpetuko dute kontratua eta kontratuaren bitartez ahalmena emango zaio «Visesari» bai obrak egiteko, Visesak egiten dituztenean, bai «Etxebizitza Hutsaren Programan» ezarritakoaren arabera errentan jartzeko.

5.– Salbuespen gisa, horretarako arrazoirik baldin bada, «Visesak» proposatuta eta ezarritako baldintzen arabera, etxebizitza lagatzen duen titularrak eta etxebizitzaren esleipenduna den pertsonak edo bizikidetzak unitateak zuzenean izenpetu ahal izango dute errentamendu-kontratua. Kasu horretan, errentamendu hori Visesari laga ahal izango zaio, betiere, kontratuaren alderdi bien onspenez, eta Visesak errentatzailearen eginkizun juridikoa hartuko du bere gain, ondorio guttiarako.

6.– Etxebizitza lagatzeko gutxieneko epea 5 urtekoa izango da.

4. artikulua.– Etxebizitza konpontzeko laguntzak

Aurreko artikuluaaren arabera etxebizitza konpondu behar denean, Visesak egin ditzake obrak, edo jabeak berak, Visesados badago eta obrak ikuskatzen baditu. Dena dela, Visesak ordainduko du obren kostua eta, ondoren, jabeari ordaindu beharreko errenta edo kanonezik kenduko.

5. artikulua.– Eskatzaileen erregistroa.

1.– Pertsona edo bizikidetzak unitate batek baldin badu interesik «Etxebizitza Hutsaren Programaren» barruan «Visesak» jasotako etxebizitzaren bat errentamenduan eskuratzeko, babes ofizialeko etxebizitza-eskatzaileen Erregistroan edo (Etxebide) Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan inskribatuta egon beharko du, eta, horrez gain, aukera hau berariaz eskatua izan behar du.

2.– «Etxebizitza Hutsaren Programaren» barruan alokairu-erregimenpeko etxebizitza bat esleitu eta alokatzeak bakar-bakarrik ekarriko du esleipenduna programa horretatik kentzea. Beraz, Etxebiden segituko du inskribatuta babes ofizialeko etxebizitza-eskatzaile gisa.

3.– Eskatzaileak programa honetatik kanpo geratuko dira eta emandako azken uko egitetik bi urteko epean ezin izango dira altan egon, baldin eta, behin-behinean etxebizitza hutsa esleitu zaiela jakinarazita, «Etxebizitza Hutsaren Programaren» barruan esleitu-tako etxebizitzari bi aldiz uko egiten badiote.

6. artikulua.– Etxebizitza hutsen poltsa.

el que se contendrá, como mínimo, el resultado de la tasación efectuada, el presupuesto completo de las obras necesarias, el plazo preciso para ejecutarlas, y la propuesta de cesión que la mencionada sociedad realiza al titular o titulares de la vivienda.

4.– Aceptada, en su caso, la mencionada propuesta la misma se incorporará al pertinente contrato de cesión que será suscrito por las partes y que habilitará o facultará a «Visesa» tanto para la ejecución de las obras, cuando estas sean realizadas por Visesa, como para el alquiler de la vivienda en los términos del «Programa de Vivienda Vacía».

5.– Excepcionalmente, cuando las razones concurrentes así lo aconsejaren, a propuesta y en las condiciones que sean fijadas por «Visesa» el correspondiente contrato de arrendamiento podrá ser directamente suscrito entre el titular cedente de la vivienda y la persona o unidad convivencial que resulte adjudicataria de la misma. En tal supuesto, el citado contrato de arrendamiento podrá ser cedido, a su vez, y con la aquiescencia de las partes contratantes, a favor de Visesa que asumirá, a todos los efectos, la posición jurídica del arrendador.

6.– El plazo mínimo de cesión será de 5 años.

Artículo 4.– Ayudas a la Reforma de la vivienda

Cuando según el artículo anterior se considere necesaria la realización de reformas en la vivienda, estas podrán ser ejecutadas bien por Visesa, o bien por el propietario, bajo la supervisión y con la conformidad de Visesa. En todo caso el coste de las mismas será abonado por Visesa y posteriormente deducido de la renta, o canon a abonar por esta al propietario.»

Artículo 5.– Registro de solicitantes.

1.– Toda persona o unidad convivencial interesada en acceder al arrendamiento de alguna de las viviendas recibidas por «Visesa» dentro del «Programa de Vivienda Vacía», tal y como se indica en el artículo 7.1 del Decreto 316/2002 de 30 de Diciembre, deberá estar inscrita en el Registro de Solicitantes de vivienda de protección oficial o Servicio Vasco de Vivienda (Etxebide) y haber solicitado expresamente dicha opción.

2.– La adjudicación y alquiler de una vivienda en régimen de alquiler con arreglo al «Programa de Vivienda Vacía» conllevará únicamente su eliminación del referido programa, sin que ello afecte a su inscripción como demandante de vivienda de protección oficial en Etxebide.

3.– Aquellas personas solicitantes a quienes se les haya comunicado la adjudicación provisional de vivienda vacía y renuncien dos veces al alquiler de la vivienda adjudicada con arreglo al «Programa de Vivienda Vacía» serán eliminados del mismo no pudiendo darse de alta en el plazo de dos años a contar desde la última renuncia.

Artículo 6.– Bolsa de viviendas vacías.

1.– Behin «Etxebizitza Hutsaren Programari» lotutako etxebizitzak izanda, «Visesak» iragarriko du eskuragarri dauden etxebizitzak poltsa bat ireki duela, programa horren arabera aloka daitezten. Horrez gain, esleitzeko oinarri orokorrak onartuko ditu, hurrengo artikuluan adierazitako prozeduraren arabera, eta esleipendun izan daitezkeenei publikoki deituko die.

2.– Poltsa hau beti egongo da irekita, eta bertan gehituko dira etxebizitzak, programan jaso ahala. Aldi berean, alokatzen diren etxebizitzak kenduko dira. Beraz, poltsan egongo dira programan jasotako etxebizitza guztiak, harik eta esleitu arte.

7. artikulua.– Esleitzeko prozedura.

1.– Hilero, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Viseari bidaliko dizkio aurreko hilean «Etxebizitza Hutsaren Programan» behin betiko alta jaso duten eskatzaileen zerrenda eta inskripzio-datuak.

2.– «Etxebizitza Hutsaren Programaren» poltsan jasotako etxebizitza bakoitza esleitzeko prozedura espezifiko izango da, ondoren adierazten den lehentasun-hurrenkeran ezarritako irizpideen arabera:

a) interesatuek eskatzen duten etxebizitzaren udalerraren araberako lehentasuna, Etxebideren izena emateko inprimakian adierazita.

b) pertsona edo bizikidetz-unitatea udalerritan eskuragarri dauden etxebizitzak ezaugarrietarako egokia izatea.

c) pertsonaren edo bizikidetz-unitatearen diru-sarrerak alokairurako aurrekusi den errentarako egokiak izatea.

3.– Berdinketa gertatuz gero, Etxebiden izena eman zuen lehenak izango du lehentasuna, eta, berdinketak jarraituz gero, berdinketa horretan daudenen arteko zozketa egingo da.

4.– Artikulu honetan ezarritakoaren arabera erabiltzen den esleipen-prozedura bakoitza berez baliogabetuko da eta bakar-bakarrik izango du indarra erabiltzen den esleipen bakoitzerako; beraz, espedienteen aurkeztutako agiri eta dilijentziak ezin izango dira berrirerabiltzen.

5.– Hiru hilabete behin, Viseari aurkeztuko dio memoria bat, egindako esleipenak eta bakoitzean jarraitutako prozedura adierazten dituenak.

8. artikulua.– Esleipen-prozedura orokorretik kanpora geratzea.

Aurreko artikuluan ezarritako prozedura gorabehera, eta arrazoirik egonez gero, etxebizitza-premia espezifikoak asetzeko erabiltzen diren etxebizitzak esleipen-prozeduratik kanpora geratu edo salbuetsi ahal izango

1.– Una vez disponga de viviendas vinculadas al «Programa de Vivienda Vacía», «Visesa» procederá a anunciar públicamente la apertura de una bolsa de viviendas disponibles para su alquiler con arreglo al citado programa, aprobando las bases generales para su adjudicación según el procedimiento que se señala en el artículo siguiente y procediendo al llamamiento público de sus posibles adjudicatarios.

2. Esta bolsa estará permanentemente abierta, y a ella se irán añadiendo las viviendas que se vayan incorporando al programa. A su vez se irán eliminando las viviendas que se vayan alquilando. En consecuencia, permanecerán en la bolsa todas las viviendas incorporadas al programa y hasta el momento de su adjudicación.

Artículo 7.– Procedimiento de adjudicación.

1.– Con carácter mensual, el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales remitirá a Visesa la relación y datos de inscripción de los solicitantes del «Programa de Vivienda Vacía» que consten dados de alta definitivamente en el anterior mes del calendario.

2.– Para cada vivienda integrante de la bolsa del «Programa de Vivienda Vacía» se llevará a cabo un proceso específico de adjudicación con arreglo a los criterios que en el orden de preferencia se establecen como sigue:

a) Prioridad del municipio en el que los interesados demanden vivienda, señalado en el impreso de inscripción de Etxebide.

b) Acomodación de la persona o unidad convivencial a las características de las viviendas disponibles en el correspondiente municipio.

c) Acomodación del nivel de ingresos de la persona o unidad convivencial, respecto de la renta prevista para el alquiler correspondiente.

3.– En el caso de empate se resolverá otorgando prioridad o preferencia a la antigüedad en la fecha de inscripción en Etxebide, y de subsistir el empate, se resolverá por sorteo entre los que se hallaren en la mencionada situación de igualdad.

4.– Cada uno de los procedimientos de adjudicación que se sigan con arreglo a lo previsto en el presente artículo expirarán en sí mismos y sólo tendrán validez para la concreta o concretas adjudicaciones a las que obedecen sin que los documentos y diligencias aportados al expediente puedan ser nuevamente empleados.

5.– Con carácter trimestral Visesa aportará al Departamento la memoria correspondiente con las adjudicaciones efectuadas y detalle del procedimiento seguido en cada una de ellas.

Artículo 8.– Exclusión del procedimiento general de adjudicación.

No obstante el procedimiento previsto en el artículo anterior, y por causas debidamente motivadas, podrán excluirse o exceptuarse a través de Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del procedimien-

dira, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez.

9. artikulua.— Behin-behineko eta behin betiko esleipenak.

1.— «Visesak» aukeratuko ditu errenta har dezaketen pertsonak, aurreko artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera; behin-behinean esleituko dizkie dagozkien etxebizitzak, eta, hala badagokio, ordezkapenak egiteko direnak gordeko ditu.

2.— Behin-behineko esleipena jakinarazi eta handik zazpi egun naturalera onartu beharko du esleipendunak etxebizitza edo uko egin. Uko eginez gero, erantzuna ematen ez bada, edo adierazitako epea edo egunean errentamendu-kontratua izenpetu ezean, «Visesak» ahalmena izango du ordezeko izendatutakoari etxebizitza esleitzeko.

3.— Aurreko idatz-zatian ezarritakorako, nahikoa izango da idatziz jakinaraztea posta arruntaz eta jaso izanaren adierazpenaz, «Etxebiden» Eskatzaileen Erregistroan agertzen den helbidean.

10. artikulua.— Errentaren zenbatekoa.

«Visesak» ezarriko du errentariak ordaindu beharko duen errentaren zenbatekoa, higiezin merkatuko prezioak eta errentak kontuan hartuta egiten duen tasazioaren arabera. Zenbateko hori urtero aldatuko da, kontsumo-prezioen indizearen arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.— «Etxebizitza Hutsaren Programaren» xede sozialarengatik, «Visesak» urteko dirulaguntza bat emango dio errentariari, errentamendu-kontratua egiten den une berean. Dirulaguntza hori errentariak ordaindu beharreko errentatik kenduko da. Dirulaguntza hori urtero berrikusiko da, pertsona edo bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera.

Bigarrena.— Dirulaguntza errentamenduaren indarraldiaren arabera eta errentariaren diru-sarrera gordinen arabera izango da, hau da, babes ofizialeko etxebizitzaren araudian ezarritako gehienezko diru-sarrerak ezin dira gaititu. Kontratuak ez dira diruz lagunduko, baldin eta kontratuetan adierazitako urteko errentaren zenbatekoak gainditzen ez badu pertsona edo bizikidetzaren unitatearen urteko diru-sarreraren ehuneko hogeita hamar. Babes ofizialeko etxebizitzaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera zenbatu eta kalkulatu dira diru-sarrerak.

Hirugarrena.— Dirulaguntza honen kenketa izango da: errentamenduaren urteko errenta ken pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen urteko diru-sarreraren ehuneko hogeita hamar. Babes ofizialeko etxebizitzaren

to de adjudicación aquellas viviendas que se destinen a satisfacer necesidades específicas de vivienda.

Artículo 9.— Adjudicación provisional y definitiva.

1.— «Visesa» seleccionará a los potenciales arrendatarios con arreglo al procedimiento previsto en los artículos precedentes, procediendo a la adjudicación provisional de la vivienda o viviendas correspondientes así como a la reserva, en su caso, de las correspondientes suplencias.

2.— En el plazo de siete días naturales desde que sea comunicada la citada adjudicación provisional, quien hubiese resultado adjudicatario habrá de aceptarla o rechazarla, en cuyo caso así como en el de que omita su respuesta o no llegue a suscribir el contrato de arrendamiento en el plazo o fecha que se le señale, «Visesa» se hallará facultada para su adjudicación a quien hubiere resultado designado como suplente.

3.— A los efectos previstos en el apartado anterior, resultará suficiente la comunicación escrita, por correo ordinario y con acuse de recibo, en el domicilio que figure en el Registro de Solicitantes «Etxebide».

Artículo 10.— Importe de la renta.

El importe de renta que habrá de abonar el arrendatario/a será establecido por «Visesa» con arreglo a la tasación que realice en función de los precios y rentas del mercado inmobiliario y se actualizará anualmente en función de la variación que sufra el índice de precios al consumo.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.

Primera.— En atención a la finalidad social del «Programa de Vivienda Vacía», la sociedad «Visesa» concederá al arrendatario/a una subvención anual, simultáneamente al otorgamiento del contrato de arrendamiento, que se descontará del importe de la renta que el arrendatario/a haya de abonar. La citada subvención será revisada anualmente según la variación de los ingresos anuales de la persona o unidad convivencial.

Segunda.— La subvención quedará condicionada a la vigencia de la relación arrendaticia así como a que los ingresos brutos del arrendatario/a no superen el umbral de ingresos máximos previstos en la normativa correspondiente a las viviendas de protección oficial. Tampoco se subvencionarán los contratos en los que el importe anual de la renta no supere al treinta por ciento de los ingresos brutos anuales de la persona o unidad convivencial, computados y calculados de conformidad con la normativa vigente en materia de viviendas de protección oficial.

Tercera.— La subvención consistirá en la diferencia entre la renta anual del arrendamiento y el treinta por ciento de los ingresos brutos anuales de la persona o unidad convivencial, computados y calculados de confor-

arloan indarrean dagoen araudiaren arabera zenbatu eta kalkulatu dira diru-sarrerak.

Laugarrena.— Dirulaguntza hau bateragarria izango da jarduketa bererako eman litezkeen beste batzuekin, baldin eta kopuru osoak errentamenduaren kostuen %100 gainditzen ez badu. Kasu horretan, dirulaguntza murriztuko litzateke, gehienezko muga hori lortu arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean gutxira eman daitezkeen dirulaguntzen zenbatekoak ez du gaindituko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako kopurua edo, aplikagarria den araudiaren arabera aurrekontu-aldaketarik onartuz gero, kopurua eguneratzen ondoriozta daitekeena.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 22a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

midad con la normativa vigente en materia de viviendas de protección oficial.

Cuarta.— Esta subvención será compatible con otras que pudieran percibirse para el desarrollo de la misma actuación, siempre que el montante total no supere el 100% de los costes del arrendamiento, reduciéndose la subvención si esto ocurriese, hasta el límite máximo correspondiente.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera.— El volumen total de la subvenciones a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no excederá la correspondiente consignación presupuestaria habilitada en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación aplicable.

Segunda.— La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2003.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.